

**Ebazpena: R041/2024**

**Espedientea: E042/2020 eta E070/2021.**

Vitoria-Gasteiz, 2024ko irailaren 25a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea honakoek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Eta honako hau erabaki dute:

## **ERABAKIA**

Zerga Administrazioko Estatu Agentziak (aurrerantzean, ZAEA) Gipuzkoako Foru Aldundiaren (aurrerantzean, GFA) aurrean planteatutako gatazkei buruzkoa. Gatazka horien helburua da HL zergapekoaren ordainarazpeneskumena eta eragiketa-bolumenaren proportzioa zehaztea, BEZari eta sozietateen gaineko zergari (aurrerantzean, SZ) dagokienez, 2015etik 2018ra bitarteko ekitaldietan. Gatazka horiek Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari dira, 42/2020 eta 70/2021 espediente-zenbakiekin.

## **I. AURREKARIAK**

1.- HLk Gipuzkoan du egoitza fiskala eta *tradingean* (materialen salerosketan) aritzen da, eta, ondorioz, zerbitzuak ematen ditu. Horretarako, bulego bakarra du, Hernanin; han aritzen dira lanean enpresako langileak. Salgaiak hornitzaileen biltegietatik bezeroen biltegietara garraiatzen dira, baina salgai batzuei granailatze-prozesu bat egiten zaie Araban.

Sozietateak 2015-2018 tartean SZgatik eta BEZagatik eragiketa-bolumenaren proportzioan tributatu zuen, eta % 100 GFari aitortu zion.

2.- 2020ko urtarrilaren 28an, 2019ko BEZaren urteko laburpen-aitorpena aurkeztu zuen (390 eredua) ZAEAREN aurrean, eta % 69,16 Estatuari egotzi zion. Konpentsatu beharreko emaitza 253.811,04 eurokoa izan zen. 2020ko maiatzaren 20an, 2019ko abenduko hileroko aitordpena aurkeztu zuen (303 eredua) ZAEAREN aurrean, eta konpentsatu beharreko emaitza bera izan zuen.

2020ko otsailaren 13an, 2020ko urtarrileko hileroko aitordpena aurkeztu zuen.

3.- 2020ko martxoaren 3an, GFAk 2015-2018 BEZari zegozkion ikuskapen-aktak egiten hasi zen, eta eragiketa-bolumenaren proportzioa aldatu zuen, eragiketak kokatzeko irizpide hauen arabera:

- Hornitzaile alemaniarrengandik zetozen materialen entregak, lurralde nazionalean garraioa hasteko unean zeuden lurralde nazionalerako lekuan.
- Hornitzaile nazionaletatik zetozen materialen entregak, hornitzaileen instalazioetan.
- Granailatzeko materialaren entregak, eraldaketa hori egiten zen lekuan.
- Zerbitzuak ematea, ematen ziren lekuetan.

4.- 2020ko maiatzaren 4an, Enpresa Handien Kudeaketarako Eskualde Unitateak (ZAEAK Euskal Autonomia Erkidegoan duen Ordezkaritza Bereziko Eskualdeko Ikuskaritza Bulegoa) zenbait informazio eta dokumentazio eskatu

zior honako hauek justifikatzeko: tributazio-aldaketa, eragiketen kokapena eta konpentsatu beharreko saldoaren jatorria.

5.- 2020ko maiatzaren 22an, enpresak ZAEARI jakinarazi zion GFAk egindako erregularizazioa.

6.- 2020ko uztailaren 22an, ZAEAK 2015-18ko BEZari buruz inhibitzeko eskatu zion GFARI, horrela bere eskumeneko zergapekoaren eragiketa-bolumenaren proportzioa aldatzeko eta Gipuzkoan kokatzeko, han gehitzen baita hornitzaileen biltegietatik bezeroenetara garraiatzen diren produktuen merkaturatzeari dagokion balioa.

7.- 2020ko abuztuaren 10ean, GFA 2015-2018ko SZren aktak egiten hasi zitzaion zergapekoari eta eragiketa-bolumenaren proportzioa erregularizatu zuen, aurrez deskribatu diren eragiketak kokatzeko irizpide berberen arabera.

8.- 2020ko abuztuaren 13an, GFAk uko egin zion errekerimenduari, uste zuelako zuzena zela eragiketak kokatzeko bere irizpidea, eta uste zuelako ZAEAK bere eskumenak gainditu zituela 2020ko maiatzaren 4ko informazio-errekerimendua egitean.

9.- 2020ko irailaren 10ean, ZAEAK eskumen-gatazka aurkeztu zuen 2015-2018 BEZari buruz. 42/2020 espediente-zenbakia esleitu zitzaion.

10.- 2020ko azaroaren 4an, HLK 2019ko ekitaldiko SZren autolikidazioa aurkeztu zion ZAEARI (200 eredua), eta eragiketa-bolumenaren proportzioa % 65,02koa zela aitortu zuen. Sartu beharreko 9.125,29 eurokoa izan zen emaitza.

11.- 2021eko ekainaren 14an, GFAk egiten hasitako 2015-2018ko SZren akten berri izan zuen ZAEAK.

12.- 2021eko abuztuaren 13an, ZAEAk inhibitu zedila eskatu zion GFARI, 2015-2018 tarteko SZgatiko zergaren eragiketa-bolumenaren proportzioari zegokionez.

13.- 2021eko abuztuaren 31n, GAEk eskumena berea zela berretsi zuen.

14.- 2021eko irailaren 9an, ZAEAk gatazka aurkeztu zuen, eta 70/2021 espediente-zenbakia esleitu zitzaion.

15.- Bi espedienteak metatu eta prozedura arruntaren bidez izapidetu dira.

## **II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

Arbitraje Batzordeak eskumena dauka gatazka hau ebazteko, Ekonomia Itunaren 66.Bat artikuluan xedatutakoaren arabera, artikuluko horrek eginkizun hauek ezartzen baitizkio batzorde horri:

«a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanteko arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea».

## 2.- Metatzea.

Arbitraje Batzordeak erabaki du 42/2020 eta 70/2021 gatazkak metatuta ebaztea, 39/2015 Legearen bidez onartutako Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 57. artikulua araberan, bien artean funtsezko identitatea dagoelako eta ebazteko eskumena duen organo bera delako bietan. Lege hori aplikagarria da Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 8. artikulua (1760/2007 Errege Dekretuaren bidez onartua) araberan.

## 3.- Akta bakarrei buruz.

Ekonomia Itunaren 19. eta 29. artikuluek diotenez, ZAEAk ahalmena du GFAk — ikuskatzeko eskumena duen administrazio gisa— aplikatutako erregularizazio-irizpideekin bat ez etortzeko.

Ondorioz, bertan behera geratzen da 2020ko maiatzaren 4ko errekerimenduan ZAEAk beharbada bere eskumenak gainditu izanari buruzko argudioa. Izan ere, egiaztatu da GFAk akta bakarrak egin dituela, eta akta horiek nahitaez jakinarazi behar zaizkio ZAEari, zeina baliteke bat ez etortzea haien edukiarekin.

## 4.- Eragiketen kokalekuari buruz.

Arabian granailatzen ez diren produktuekin lotutako *trading*-eragiketek izan behar dute ebazpen honen xedea. Izan ere, haietan bakarrik ez dator bat ZAEA GFAk aplikatutako kokapen-irizpidearekin.

Espedientean dauden datuen arabera, HLk bere langileen bitartez egiten du merkaturatze-lan hori, eta langile horiek Gipuzkoako establezimendu bakarrean ari dira lanean.

Horrekin bat, eta Arbitraje Batzorde honek finkatutako irizpide jarraituaren arabera —besteak beste, 7/2021, 16/2022, 160/2022, 163/2022, 17/2023, 18/2023 eta 109/2023 Ebazpenetan—, kontuan hartu behar da merkaturatze-jarduerari dagokion balioa gehitzen zaion lekua. Leku hori izango da jarduera hori egiteko baliabide material eta giza baliabide nahikoak dituen merkataritza-ordezkaritza bat, zeren eta garraioaren hasierako (biltegiatzea eta paketatzea) kokapenean egiten den jarduerak ez baitu, oro har, merkaturatze-jarduera dela-eta balio erantsia emateko behar besteko gaitasunik.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

## **ERABAKITZEN DU**

1.- Adieraztea, 2015-2018 tarteko BEZari eta SZri dagokienez, Gipuzkoan kokatzen direla HLk hornitzaileen instalazioetatik zuzenean bere instalazioetara garraiatutako ondasunen artean bezeroei egindako entregak.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioiko Estatu Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta HL sozietateari jakinaraztea.

Sin.: Violeta Ruiz Almendral.

Sin.: Sofía Arana Landín.

Sin.: Javier Muguruza Arrese.